

KULTURA, KONPROMISOA

Manuel Garcia de Andoin «Manolo» eta Jose Mari Lopez de Elorriaga «Coppi»

📁 JENDARTEA / Xabier Izaga Gonzalez

Gasteizko Urrezko Zeledonak kultura elkartearen aldizkariak lagun biri eskaini die bere zazpigarren zenbakia, Manuel Garcia de Andoin *Manolo* eta Jose Mari Lopez de Elorriaga *Coppi*, hain zuzen. Aldizkariaren sarrreran, Urrezko Zeledonak elkarteke presidente Josemari Velez de Mendizabalek honela laburbildu ditu lagun bion ibilbidea eta izaera lerro bakan batzuetan: «Batez ere euren jaioterriko jai izpirituari heldu zioten gogo biziz, modu aktiboan. ‘Urrezko’ 7. zenbaki honek bi gasteiztar peto, bi folklerezale, bi nortasun jori eta bi gizakume konprometitu gogoratu nahi ditu. (...) Euren gaineko oroitzapena finkatzea da helburua, iragan ez hain urrutiko Arabako kultura eragileak izan baitziren eta haien irudia belaunaldi berriei eraman behar zaiela iruditut zaigu».

Biak izan ziren Urrezko Zeledon, urtero kultura, jendarte, zientzia eta beste alorretan nabarmentzen diren pertsonai edo taldeei ematen zaien saria jaso baitzuten Manolok eta Coppi 1987an eta 1993an, hurrenez hurren. Eta beste Urrezko Zeledon batek, Jose Mari Bastida *Txapik*, idatzi du bien biografia “Urrezko” aldizkarian; izan ere, ondo ezagutu zituen bera oso gaztea zenetik.

Txapirekin batera, biografiatu biak ezagutu zituzten beste bi lagunek ere hitz egin dute GAUR8rekin: Roberto Martinez del Campo *Pol* eta Felix Alberto Garcia *Pitxi*. Txapi, Arabako historia eta kulturaren ezagutzaile aparta, txistularia eta gaita eta tronpeta jotzailea da. Pol, atabalaria, Pi-

txirekin hasi zen dantzan. Azken honek, iheslari politiko ohiak, harreman estua izan zuen Manolorekin Baionan. Hirurak ere, Oldarki dantza taldekoak izan ziren Manoloren zuzendaritzapean. Txapiren biografiak oinarri, Manoloren eta Coppiren ibilbidea gogoratu eta haien hamaika pasadizo kontatu dituzte; lerrootan, ordea, bakan batzuk baino ezin izan dira jaso.

MANOLO

Garcia de Andoin 1920an jaio zen Gasteizko Aiztogile kalean. Hamaika urterekin Zapatari kalean ELAk sortu zuen ikastolara joaten zen, eta garai bertsuan hasi zen dantzaren eta txistuaren munduan, sasoi hartako Gaztetxu taldean.

Berrogeiko hamarraldian Jesus Errasti txistularia ezagutu zuen eta Santa Maria parrokiako zentroan dantza entseguak zuzentzen hasi ziren biak. Euskal dantzari eutsi beharra zegoela uste zuten, eta zenbait urte igarota, Txirinbil dantza taldea sortu zuten, arrakasta handia lortu zuen taldea.

Dantzak, txistuak, kulturak ez ezik, egoera politikoak ere kezkatzen zuen Manolo, eta kezka horrek beste jardun batzuetara eraman zuen. Peli Romarategi, laster 100 urte bete-

horrelako eskaerak agertu zituzten panfletoetan. Berarekin ekintza hartan parte hartu zutenen deiturak aipatu zituen Romarategik: Olano, Kortazar, Saez Lanas, Quintana eta Garcia de Andoin. Errepresioa salatzeke ekintza hura larrutik ordainduko zuten, ordea, Poliziak denak harrapatu, Hedegile kaleko polizia etxean jipoitu eta kartzelatu egin baitzituzten.

Euskara arrotz ez bazuten ere, «benetan, gramatikarekin», kartzelan ikasi zuten, «irakaslerik onenarekin», Romarategik gogoratu zuenez: Andoni Urrestarazu *Umandi* rekin. Espetxetik ateratakoan, haren etxean jarraitu zuten ikasten. Eta han, San Antonio kaleko etxe hartan, sarritan atxilotuko zituzten berriro ere, baita behin baino gehiagotan kartzelatu ere, lege kanpoko bilerak egitea egotzita.

1954an, Txirinbil taldearen arrakasta gorabehera, Manolok ez zuen dantza erakustaldi

ko dituen misiolari eta artista gasteiztarra, berarekin ibili zen jardun klandestinoan. Duela urte bi, 1940ko hamarkadaren erdialdean kartzelara eraman zituen ekintza bat kontatu zion Romarategik GAUR8ri: «Franco Gasteizera etorri zen estatua bat inauguratzera, Senda pasealekuan. Egun hartan, bost lagunek pasealeku osoa ikurrinez eta panfletoz bete genuen». “Erbesterauei muga zabaldu”, “Preso politikoak askatu” eta

Manolo Garcia de Andoin, ezkerrean, Justo Agirrezabalekin eta Iñaki Perez Viñegrarekin.
ARQUE/AMVG



hutsa egin nahi. Euskal dantza hedatu eta herriak propiotzat hartzea nahi zuen. Helburu horrekin, Oldarki taldea sortu zuen Patxi Martinez de Luna eta Iñaki Viñegra txistularien laguntzaz. Oldarki ere maila handiko taldea izan zen, eta dantza erakustaldiez eta hedapen lanaz gainera, hainbat dantza berreskuratu zituzten, hala nola Aramaioko “Txakolin” eta Arabako Errioxako dantza asko. Beste dantza batzuk, berriz, sortu egin zituzten; esate baterako, “Neska-mutilak azkenian pozik”, Felix Ascassoren partituraren gainean Manolok eta Jesus Errastik egin zuten koreografia.

Ekimen asko bultzatu zituen eragile gasteiztarrek, hala nola Santa Ageda bezperako koruak berreskuratzea, gerra baino lehen ezagutu zuen ohitura go-goan zuela. Baimena lortzea ez zen erraza; gainera, Manolok ezin zuen baimenik eskatu, Errepublikara garaian, artean oso gazterik, isun bat ezarri baitzioten Vitoriano pilotalekuko mitin batean irakurri zituen hitz batzuk zirela-eta; halaber, frankismoan ere komisaria eta kartzela ezagutu zituen bere konpromiso aberztalea zela eta. Azkenean, trikimailuren bat tarteko, lortu zuten nolabaiteko baimena.

BAIONA TTIPIKO «OHOREZKO ALKATE»

Garcia de Andoinek Ipar Euskal Herrira ihes egin zuen 1968an eta hil arte Baionan bizi izan zen, Amnistia Legeaz geroztik Gasteizera eta Hego Euskal Herriko beste leku batzuetara bisitaldiak egiten zituen arren. Felix Alberto Garcia lehena gotik ezagutzen zuen Manolo, eta berak ere 1979an ihes egin zuenez, harreman estua izan zuen harekin Baionan eta, muga zehar-



Ezkerretik hasita, Felix Alberto Garcia «Pitxi», Jose Mari Bastida «Txapi» eta Roberto Martinez del Campo «Pol».

Raul BOGAJO | FOKU

katu ahal izan zuenean Gasteizen ere bai, tarteka.

1967an Oldarki taldea Biarritzera joan zen dantza egitera, baina garai hartan ez zen samurra muga igarotzeko baimena lortzea. Pitxik galdetu zuen zer behar zen baimena eskuratzeko eta Manolok esan zion gutxienez alkatearen sinadura edo zigilua. Arratsalde hartan bertan Pitxi udaletxera sartu zen ezkutuka eta gela bateko mahai batean zigilua topatu zuen, baita eraman ere, jakina. «Baimen» horrekin zeharkatu zuten muga.

Gogoan dute Pitxik eta Polek 1968ko apirilean, eurak Martuteneko kartzelan zeudela, Manolok Ipar Euskal Herrira alde egiteko bezperan, bisitan joan zitzaizela bien amekin. Pitxiren abizena eta Manolorenaren lehen parte berdinak direla baliatuta, haren osaba zela esan eta biak ikusi ahal izan zituen.

Ez zen Pol eta Pitxik kartzela zapaldu zuten lehen aldia izan, ezta azkena ere, 1967an sartu eta behin-behineko askatasunean atera baitziren;

1971n Pitxi atxilotu eta Ocaña-ko espetxera sartu zuten, eta Polek ihesari eman behar izan zion; 1975ean biak sartu zituzten; 79an Pitxik alde egin zuen eta 81ean Pol berriro kartzelatu zuten...

Ez zen gauza arraroa Oldarki taldeko kideren bat, Manolo tartean, atxilotuta, kartzelan edo ihesean egotea. Pol eta Pitxi 1965 aldera sartu ziren Oldarki taldera; Txapi, berriz, 1968an. Honek gogoan du lehen aldiz jendaurrean dantza egin zuenean, Zalduondon, Pitxi eta Polez gainera taldeko beste lau kide espetxean zeudenez, lau dantzarik auresku bat eta launako

bat baino ezin izan zutela dantzatu, jenderik ez zegoelako. Esan bezala, urte hartan ihes egin zuen Manolok Ipar Euskal Herrira, hamaika atxilotze eta kartzelatzeren ostean.

Edonola ere, Manolok ihesean ere Gasteizko dantza talde-ekiko harremanari eutsi zion; izan ere, Gasteizko zenbait talde Ipar Euskal Herrira, batez ere Lapurdira, dantza egitera joaten zirenean, Manolo eurekin elkartzen zen.

Hego Euskal Herritik zihoa-zen errefuxiatuekin ere harreman handia izan zuen, beti eman zien laguntza eta oro har oso maitatua zen hiri hartan «Baiona Ttipiko ohorezko alkatea». Han zenbait kultura elkartetako kide izan zen, eta haietako bat sortu zuen, Zahakin. Elkarrekin, Lehoi Erregea Baionako besten sinboloaren sortzaileetako bat izan zen. Berak iradoki zien gazte baionarrei besten hasierarako pertsonaia bat sortzea, Gasteizek Zeledon zuen modu berean.

1987an auto batek harrapatu eta larriki zauritu zen. Orduz gero, gorpil aulkian mugitu behar izan zuen. Istripua gertatu eta egun batzuk geroago Urrezko Zeledon saria eman baitzioten, Bordeleko ospitalean jaso behar izan zuen ikurra, Iñaki Ruiz de Pinedo eta Maritxu Goikoe-txea Gasteizko zinegotziek Udalaren izenean eramanda.

COPPI

Manolo baino hamarraldi bi pasatxo geroago jaio zen Jose Mari Lopez de Elorriaga Coppi, 1942an, hain zuzen. Oinarritzko ikasketak egin ondoren, Lanbide Heziketa egiten hasi zenean, ikastetxean Jesus Moraza ezagutu zuen. Lagunak egin ziren eta Morazak musika pixka bat eta txistua jotzen irakatsi

1954an Manolok ez zuen dantza erakustaldi hutsa egin nahi. Euskal dantza hedatu eta herriak propiotzat hartzea nahi zuen. Helburu horrekin, Oldarki taldea sortu zuen

Ez zen gauza arraroa Oldarki taldeko kideren bat, Manolo tartean, atxilotuta, kartzelan edo ihesean egotea. Txapik lehen aldiz dantza egin zuenean, taldeko sei kide espetxean zeuden

zion. Hamabost urterekin hasi zen dantzaren munduan San Pedro parrokiako zentroan eta, aldi berean, mendizaletasuna piztu zitzaion. Baina mendizaletasunak ez zion goitizena eman, beste zaletasun batek baizik: ziklismoak.

Parrokiako zentroa utzi zue-
nean, Oldarki taldera sartu
zen, Garcia de Andoinek sortu
zuen hartara, hain zuzen. Dan-
tza taldeak harremana zuen
Manuel Iradier Txangolari El-
kartearekin, eta Coppi bertako
espeleologia taldera sartu zen.
Taldea hura, 1962tik aurrera,
beste espeleologia talde bate-
kin bat eginda, Arabako Espe-
leologia Taldea izango zen.

1963an, Euskal Herriaren bi-
lakaera kultural eta politikoan
erreferentzia izango zen topa-
keta baten sortzaile izan zen.
Gorbeiako Mairuelegorreta
leizeko «zezen plaza» esaten
dioten aretoan Jesus Guridiren
“Amaia” operako ezpata dan-
tzaren doinurako egindako ko-
reografia dantzatu behar zute-
la bururatu zitzaion, euskal
jaiak, euskara, mendizaletasu-
na bera jarduera ia subertsibo-
ak ziren garaian. Manuel Ira-
dier Txangolari Elkartearen
eskutik, Coppiren ideari eutsi
eta 1963ko uztailaren 21ean
Mairuelegorretako «zezen pla-
zan» “Amaia” ezpata dantza
izan zen protagonista, bertso-
lariekin, abeslariarekin eta mu-
sikariekin batera. Hainbat mo-
tatako eragozpen ugariri aurre
eginda, jaialdia baino askoz
gehiago izatera iritsiko zen;
sasoiko askatasun nahiak hi-
tzordu saihetsezin izateraino.

Coppik argi zeukan euskal
dantzak harrobia behar zuela
Arabian, eta uste sendo horrek
gidatuta, Gaztetxu dantza tal-
dea sortu eta zuzendu zuen
Purificacion Goikoetxea emaz-
tea izango zuenaren laguntzaz.

Oso talde garrantzitsua izan
zen Gaztetxu. Eta, Coppik nahi
zuen bezala, benetako harrobia.

1967an, Arabako Dantzarien
Biltzarraren sorreran parte
hartu zuten Manolok eta berak
Gernikan, gainerako herrialde-
etako ordezkariarekin bilera erdi
klandestino batean. Arabatik,
Manolo eta Coppirekin Jose
Antonio Markinez eta Fernan-
do Diaz Barruso joan ziren.
1970ean, Zarautzen egin zen
batzarrean, Coppi Arabako or-
dezkari izendatu zuten.

60ko hamarraldi hartan kez-
ka handi bat zuen Coppik: de-
sagertzeaz zeuden euskal musi-
ka tresnak. Hartara, alboka
jotzen hasi zen bere anaia Iña-
kik panderoarekin lagunduta.
Jo ez ezik, diseinatu ea fabrika-
tu ere egiten zituen albokak eta
dultzainak. Bere anaiarekin jo-
tzen zuen gaita, eta 1972az gero,
Gasteizko jaietan Guardiako
eta Nafarroako bandak baino ez
zirela agertzen ikusita, Iru bat
taldea sortu zuen; haren anaiak
danborra jotzen zuen eta Tito
Aldama Hertzainak taldeko ki-
de izango zenak bigarren aho-
tsa. Euskal musika tresnak he-
datzeak ere arduratzen zuen
Coppi, eta berari esker hainbat
talde sortu ziren, hala nola Or
Konpon gaita banda, aurtengo
Urrezko Zeledon Mikel Delika
kide izan zuena. Gaita jotze-
ari utzi zionean, txistua jotzen ja-
rraitu zuen, Txiribil taldeko

**1963an Gorbeiako Mairuelegorreta leizeko
«zezen plaza» esaten dioten aretoan “Amaia”
ezpata dantzaren koreografia dantzatu behar
zutela bururatu zitzaion «Coppi»-ri**

**«Coppi»-k argi zeukan euskal dantzak harrobia
behar zuela Araban, eta uste sendo horrek
gidatuta, Gaztetxu dantza taldea sortu eta
zuzendu zuen Eta benetako harrobia izan zen**



Goian, «Txapi»-ri
Guardiako Gaiteroen
Egunean egin zioten
omenaldian, Jose Mari
Lopez Elorriaga «Coppi»-
k eman zion oroigarria.
Behean, «Manolo»
aureskua dantzatzen;
ezkerraldean, lehena,
«Pol» ageri da.
Jose Maria Bastida «Txapi» -
Oldarkiren artxiboa

txistulari bandan, hainbat dan-
tza talderekin, jaietan...

ANTZ-AZTURAK

Hainbat omenaldi egin izan diz-
kiete Coppiri eta Manolori, asko
Arabako lehengo eta oraingo
dantzariak. 2001ean, Manolo hil
zenean Baionan egin zioten
omenaldian, Demetrio Iriarte
txistulari oñatiarrak duela urte
asko konposatu eta Manolori
eskaini zion biribilketa entzun
zen: “Aupa Manolo!”.

«Antz-azturak», dio Pitxik,
Manolo gogoan, eta kontatu du
behin Lesakan, Manolo gurrpil
aulkian zeramala, bideari erre-
paratu gabe biok herriko dan-
tzariei begira, aulkiak zoru er-
tzeko kokka batekin estropezu
eginda Manolo lurrera jausi ze-
la. Pitxi laguna altxatzera gertu-
ratu zen eta bizkarrean uzkur-
dura nabaritu zuen. Foruzain
bat hurbildu zitzaion eta Mano-
lok bista altxatuta: «Hara, orain
erreketeak ere badatoz!». «Izan
ere, hilobirainoko antz-aztu-
rak», jarraitu du Polek. Bordele-
ko ospitalean, hiltzeaz zegoela,
botika bat aldatu zioten eta sen-
dagileak galdetu zuen alergi-
aren bat al zuen. Manolok or-
duan tentetu eta esan zuen:
‘Bai! Guardia Zibilari!’.

Coppik gaur egun desgaita-
sun fisiko handia du, baina be-
re gaixotasunak eragotzi arte
jarraitu zuen txistua eskuan,
Parkinson gaixotasunak eragi-
ten zion dardara gorabehera.
Dardara hori ezker eskuan oso
bortitza izatera iritsi zenean,
eskuz aldatu zuen txistua, jo-
tzen jarraitzeko.

Zertzelada batzuk baino ez,
beren herriaren nortasunaren
adierazgarriari eusteko bizitza
oso bat eman duten gizon biren
gainean. Velez de Mendizabale-
kin bat, haien irudia belaunaldi
berriei helarazten laguntzeko
balioko dutelakoan.